

Euskal AEko biztanleria landuna %0,4 igo da eta langabezia-tasa %8,7an da 2009ko laugarren hiruhilekoan

Hiruhileko honetan 3.400 enplegu garbi sortu dira

Euskal AEko lan-merkatuaren 2009ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, okupatuak 951.200 ziren hiruhileko horretan, beraz, aurreko hiruhilekoan baino 3.400 gehiago (%+0,4), Eustaten datuen arabera. Bestalde, langabezia-tasa %8,7an da; 2009ko hirugarren hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,4 puntu gehiago.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa %55,8an da 2009ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekokoaren ehuneko 0,4 puntuz gainetik.

Generoaren arabera, gizonei eragin die batik bat okupazio-igoerak, eta okupatuak aurreko hiruhilekoan baino 4.200 gehiago dira; emakumeen kasuan, berriz, 700 gutxiago. Hiru herrialdeetatik bitan igo da okupazioa: Bizkaian enplegu garbiak 4.400 gehiago dira; Araban 100 gehiago; Gipuzkoan 1.100 gutxiago.

Industrian, eraikuntzan eta nekazaritzan enplegua bizkortzen ari da; zerbitzuen sektorean galera dago.

Industriak 3.200 enplegu garbi irabazi ditu; eraikuntzak 1.700; nekazaritzak 800. Zerbitzuen sektorean, berriz, 2.300 gutxiago.


Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %65,2an da, hots, hiru hilabete lehenago baino 0,3 ehuneko-puntu gehiago. Tasa hori gizonezkoentzat %72,2koa da eta emakumezkoentzat %58,2koa.

Lurralde historikoetan, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoakoa da: %67,2; Araba ondoren, %65,5; bi kasuetan aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Bizkaia du tasarik txikiena, %64; azken hiruhilekoan puntuko zortzi hamarren hazi da.

Kontratu mugagabea duten soldatuen kopurua 7.900etan hazi da, 624.800 delarik; aldi baterakoa dutenak (kontraturik ez dutenak barne) 2.400 gutxiago dira, 161.900 gutzira.

2009ko laugarren hiruhilekoan zenbatesten da Euskal AEn gutxi gorabehera dauden 841.300 familia-etxeetako heren batean ez dagoela pertsona aktiborik. 10etik ia 6an pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 400 familia gutxiago; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 28.000 dira (guztirakoaren %3,3), aurreko hiruhilekoan baino 4.600 gehiago.

Biztanleria landunaren joera, 1985etik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: Eustat

Langabezia-tasa %8,3tik %8,7ra igo zen

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko laugarren hiruhilekoan 90.400 direla zenbatetsi da, 4.900 gehiago aurreko hiruhilekoan baino. Emakumezko langabeen kolektiboak 39.200 lagun hartzen ditu, 6.700 gehiago. Gizonezkoen artean, 1.800 gutxiago daude laugarren hiruhilekoan, orain guztira 51.200 dira.

2009ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa %8,7an da, aurreko hiruhilekoaren aldean 0,4 puntu gehiago. Emakumeen langabeziari dagokionez, %8,5era igo da (ehuneko 1,4 puntu gehiago), eta gizonena 0,3 puntuz jaitsi da, %8,8 delarik. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %25,4; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 14.400 gazte aktibo daude langabezian.

Herrialdeka, langabe-hazkunderik handiena Bizkaian da (2.300); langabezia-tasa, %9,2. Gipuzkoan 23.800 langabetu daude, 2.200 gehiago, eta tasa %7,1ean da. Araban tasa %10,2 da, 400 pertsona gehiago aurreko hiruhilekoaren aldean.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2009ko azaroan, 27-EBko langabezia-tasa %9,5ean zen, eta Espainiakoa %19,4an.

Azken urtean Euskal AEko langabe kopurua 42.700 pertsonaz hazi da

Biztanleria landunak behera egin du azken hamabi hilabeteetan. 2009ko laugarren hiruhilekoan, 2008koaren aldean, 26.600 pertsona gutxiago, %-2,7. Jaitsiera horrek gizonei eragin die batik bat, 19.700 enplegu gutxiago; emakumeen artean 6.800.

Langabezia-tasa ehuneko 4,0 puntuz hazi zen azken urtean (%4,7tik %8,7ra). Beraz, 42.700 pertsonak utzi zioten landun izateari Euskal AEn urtean zehar. Araban langabezia-tasa ehuneko 4,8 puntuz hazi da; Bizkaian 4,3z, eta Gipuzkoan 3,2z, azken hamabi hiletan.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2009ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	e.p.*	Milakoak	e.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.865,4		+0,1		+8,0	
AKTIBOAK / IHARDUERA TASA	1041,6	55,8	+8,2	+0,4	+16,2	+0,6
Gizonezkoak	581,9	64,2	+2,3	+0,2	+7,8	+0,6
Emakumezkoak	459,7	47,9	+6,0	+0,6	+8,4	+0,7
BIZTANLERIA LANDUNA / ENPLEGU-TASA	951,2	65,2	+3,4	+0,3	-26,6	-1,8
Gizonezkoak	530,8	72,2	+4,2	+0,8	-19,7	-2,6
Emakumezkoak	420,5	58,2	-0,7	+0,0	-6,8	-0,9
Araba	143,7	65,5	+0,1	-0,2	-5,6	-2,9
Bizkaia	496,8	64,0	+4,4	+0,8	-9,0	-1,1
Gipuzkoa	310,7	67,2	-1,1	-0,2	-12,0	-2,4
Nekazaritza	9,5		+0,8		-1,6	
Industria	223,3		+3,2		-23,0	
Eraikuntza	79,7		+1,7		+0,3	
Zerbitzuak	638,7		-2,3		-2,3	
Soldatakoak	786,7		+5,5		-20,7	
- Kontratu mugagabea dutenak	624,8		+7,9		+3,3	
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	161,9		-2,4		-24,0	
Ez soldatakoak	164,5		-2,1		-5,8	
LANGABEAK / LANGABEZI-TASAK	90,4	8,7	+4,9	+0,4	+42,7	+4,0
Gizonezkoak	51,2	8,8	-1,8	-0,3	+27,6	+4,7
Emakumezkoak	39,2	8,5	+6,7	+1,4	+15,2	+3,2
16 - 24	14,4	25,4	+0,4	+0,1	+7,7	+13,6
25 - 44	56,9	9,6	+6,8	+1,1	+25,8	+4,3
45 eta gehiago	19,1	4,9	-2,3	-0,6	+9,2	+2,3
Araba	16,4	10,2	+0,4	+0,2	+7,8	+4,8
Bizkaia	50,2	9,2	+2,3	+0,3	+24,1	+4,3
Gipuzkoa	23,8	7,1	+2,2	+0,6	+10,8	+3,2
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	823,8	44,2	-8,1	-0,4	-8,2	-0,6
ETXEBIZITZAK	841,3		+1,2		+0,8	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	576,1	68,5	+4,9		+4,0	
- Guztiak okupatuak	499,6	59,4	-0,4		-29,6	
- Guztiak langabeak	28,0	3,3	+4,6		+14,7	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	265,2	31,5	-3,6		-3,2	

*e.p. = Aldea, ehunekotan

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^aJosé Santamaría Gallardo

+Tlf:+34-945-01 75 33 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp